

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

552/2026 Erabakia, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Vitoria-Gasteizko udalerrian dagoen Arkatxa mendiaren onura publikoko adierazpena, eta Arabako Onura Publikoko Mendien Katalogoan sartzea

Mendiolako Administrazio Batzarrak Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean 2025eko urtarrilaren 7an aurkeztutako idazkiaren bidez (sarrera zenbakia: 202590500000227), Arabako Onura Publikoko Mendien Katalogoan mendi bat sartzeko eskatu zuen. Hala, Mendiolako herriaren titulartasuneko mendia onura publikokoa dela adierazteko justifikazio memoria idatzi zen, Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan eta, modu osagarrian, otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuaren bidez onetsitako Mendien Erregelamenduan jasotakoaren arabera. Araudi horrek indarrean jarraitzen du, Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legearen xedapen indargabetzaile bakarraren 2. apartatuan xedatutakoaren arabera (apirilaren 28ko 10/2006 Legeak aldatu zuen).

Mendiolako Administrazio Batzarrak, eskaerarekin batera, katalogatu gabeko mendi publiko bat katalogatzeko justifikazio txosten bat aurkeztu zuen, bai eta Mendiolako Administrazio Batzarreko fede emaeleak emandako ziurtagiri bat ere, non egiaztatzen baita Mendiolako Kontzejuak gehiengoz hartu zuela mendi horren katalogazioa eskatzeko erabakia.

Mendien Zerbitzuak 2026ko maiatzaren 5ean egindako txosten teknikoan justifikatzen da mendi horren onura publikoaren adierazpen, Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 17. artikuluko A, B, C eta E apartatueta jasotako baldintzak betetzen dituelako, garrantzi bereziko baso balioa duten lursailak baitira. Bereziki, lurzorua higadura prozesuetatik babesteko funtsezko eginkizuna betetzen dute, eta eraginkortasunez laguntzen dute erregimen hidrologikoa arautzen, laboreak eta azpiegiturak babesten eta dibertsitate biologikoa eta paisaia kontserbatzen. Era berean, behar bezala ordenatuta eta araututa dagoen aprobetxamenduaren ondoriozko errentek diru sarrerak ekarriko dizkiote Mendiolako herriari.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, entzunaldia eman zitzaion Mendiolako Administrazio Batzarrari, alegazioak egin eta egoki iritzitako dokumentuak eta justifikazioak aurkez zitzaion. Horretarako, Mendi Zerbitzuak egindako txosten teknikoa bidali zen. Entzunaldiko izapidetako aurreikusitako hamabost eguneko gehieneko epea amaituta, ez da alegaziorik jaso.

Txostenak, planoak eta 13/25 zenbakiko espedientean jasotako dokumentazioa ikusi eta aztertu dira, eta Arabako Lurralde Historikoko Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak 20. artikuluan xedatutakoa hartu da kontuan. Ondorioz, proposatzen da Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatuta dagoen eta Mendiolako herriarena den Arkatxa mendia onura publikokoa dela adieraztea eta Arabako Onura Publikoko Mendien Katalogoan sartzea 756. zenbakiarekin.

Horren ondorioz, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Adieraztea Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatuta dagoen eta Mendiolako herriarena den "Arkatxa" mendia onura publikokoa dela, espedientean jasota dauden agirien, irizpen juridikoen, txostenen eta planoen arabera.

Bigarren. Mendi hori Arabako Onura Publikoko Mendien Katalogoan sartuko da, 756 zenbakiarekin, eta honako hau jaso beharko du:

- Mendiaren izena: "Arkatxa".
- Katalogorako proposatutako zenbakia: 756.
- Udalerria: Vitoria-Gasteiz.
- Barruti judiziala: Arabako 2 zenbakiko Barruti Judiziala.
- Lurralde historikoa: Araba.
- Autonomia Erkidegoa: Euskal Autonomia Erkidegoa.
- Jabea: Mendiolako Administrazio Batzarra.
- Mugak:
 - Iparraldean: Mendiolako mendiak eta finka partikularrak.
 - Ekialdean: Mendiola-Otazuko kontzejuaren muga.
 - Hegoaldean: finka partikularrak.
 - Mendebaldean: finka partikularrak.
- Azalera: 10 hektarea, 59 area eta 64 zentia.
- Vitoria-Gasteizko udalerriko Landa Katastroko erreferentzia: 16 poligonoko 93 lurzatia.
- Espeziea: erkametza (*Quercus faginea*).
- Barrendegiak: ez daude jasota.

Hirugarrena. Mendiaren onura publikoaren adierazpenaren ondoriozko datuak Arabako Foru Aldundiko Landa Katastrora eramatea, dagozkion idazpenak eginez.

Laugarrena. Mendi, adierazi diren ezaugarriekin, Jabetza Erregistroan eroldatu dadila agintzea.

Bosgarrena. Ebazpen hau interesdunei eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografiakorako Ministerioari jakinaraztea.

Seigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea eta Mendiolako Administrazio Batzarrari eta Vitoria-Gasteizko Udalarri jakinaraztea, dagozkien iragarki tauletan argitara dezaten.

Zazpigarrena. Administrazio bidea amaitzen duen foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, Nekazaritza Saileko foru diputatuari. Hori guztia, honako hauek xedatutakoarekin bat etorriz: Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko abuztuaren 4a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMI AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNANDEZ SARABIA